

koen gogoetari egotzitako tarteak labur geratzen da (212-217. orrialdeak). “Arras interesgarria da fenomeno hori aztertu eta kultura baten inguruan kanpotik proiektaturiko ikuspuntuak hautematea, euskaldunei buruzko ideia eraikitzeko modu desberdin horiek kulturaren barneko ikuspegi propioaren osagarri baitira. Are gehiago: atzerriko dokumentalisten lanak berebiziko alteritatea eta distantzia eskaintzen ditu kultura bat erlatibizatzeko eta balioesteko, ikusmolde orekatuago, osasungarriago eta aberasgarriago batetik hautemateko. Asko ikasten dugu lan horietatik” (217. orrialdea). Hauxe da, dudarik gabe, etorkizunari begira zabalik dagoen ikerlerro interesgarria.

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua



GOIKOETXEA, Garikoitz
Euskara irabazteko bidean

Donostia : Berria, Elkar Argitaletxea, Jakin
231 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-9027-675-4

2016 urteko sorpresa izan zen “Euskara irabazteko bidean” liburua, Garikoitz Goikoetxea Berriako kazetariak idatzia. Besteak beste, Elkar argitaletxearen eta Berria egunkariaren artean abiatu duten Aleka sailaren barruan dago liburu hau, eta euskararekin lanean ari diren, eta oro har, euskararen egoeran interesa duten lagunen artean arrakasta handia izaten ari dela esan genezake.

Egileak ere merezi du deskribapen txiki bat, izan ere, azken urte hauetan Garikoitz Goikoetxea izan da Berria egunkarian euskarari buruz artikulua argitaratu dituen kazetari nagusia. Hain zuzen ere, besteak beste, Espainiako EA Erako Ordezkarria zen Carlos Urquijoren aferaren moduko gaiak aztertu ditu bere erreportaje, elkarrizketa eta artikuluetan. Liburu honen kasuan, ordea, gaia zabaldu eta euskararen egoera ezin hobeto islatzen duen testua argitaratu du. Hori egin ahal izateko, Berriarako euskararen gaikako edo lurraldekako egoerari buruzko lanak argitaratu izanak lagundu dio bere lehen liburua hain egoki idazterako orduan.

Esan genezake liburu honek diagnosi lana egin nahi duela, edo beste era batera esanda, euskararen egoera zein den aztertzeko material bezala erabili daitekeela. Izan ere, euskarak hainbat esparrutan duen egoera gertutik aztertzen du arlo bakoitzeko adituekin bildu eta beraien ekarpenak eta iritziak jasoz. Hau honela, eta adibide batzuk jartzearen, Lorea Agirre, Iñaki Agirreazkuenaga, Xan Aire, Jon Aizpurua, Olatz Altuna, Kike Amonarriz, Lurdes Auzmendi, Amelia Barquin, Patxi Baztarrika, Paul Bilbao, Jone Goirigolzarri, Jone Miren Hernandez eta Iñaki Martínez de Luna izan dira liburu honetan parte hartu duten adituetako batzuk. Jakina da aditu asko aipatu gabe gelditu direla azken esaldian, baina zerrenda mugatu honek berak modu nahiko zehatzean adierazten du elkarrizketatutako adituen eta jasotako ekarpenen aniztasuna nolakoa izan den.

Liburuaren filosofiarekin hasiera-hasieratik bat egiteko, sarrera ezin egoki batekin hasten du liburua egileak, izan ere, “Bide bat egiteko” izenburuarekin liburu honen helburua zein den aditzera ematen baitigu Goikoetxeak, eta gerora liburuan ikusiko dena aurreratzen du. Hau honela, ez du euskararen biziberritze prozesua porrot gisa ikusten, eta ezta erabateko arrakasta bezala ere; besterik gabe, euskararen normalizazioa erdiesteko bidean gaudela azpimarratzen du eta prozesuari berari ematen dio garrantzia, momentu honetan bertan ereindako emaitzak ospatzea edo gutxiestea baino gehiago. Horretarako, gure herri honetako gisa bereko argitalpenetan beharbada gutxi ikusi dena burutu du egileak, hau da, Euskal Herri osoko errealtate osoa aintzat hartuko duen testua osatzeko gai izan da; euskararen egoerari buruzko datuei hausnarketa biziki interesgarriak gehitu dizkio; autokritika eta mezu baikorrak uztartzen ditu; idazkera zuzena bezain gordina darabil liburuko pasarte guztietan; eta bukatzeko, denentzako du egileak, bai onerako, eta baita ‘txarrerako’ ere.

Liburuaren egituraketa aztertuko bagenu, “Euskara irabazteko bidean” hiru ataletan banatzen da, nolabaiteko progresio narratiboa proposatuz. Lehenik eta behin, “Orain arteko ibilbidea” izeneko atala dugu, eta bertan, euskararen egoera zein den adieraziko duten aldagaiak labur-labur azaltzen ditu Goikoetxeak, beti ere Euskal Herria osatzen duten hiru eskualde eta zappi probintziak kontutan hartuta, xehetasunak gehiegi aztertu gabe eta idazkera arina erabiliz, deskribapen zehatzak eginez.

“Ofizialtasuna” da lehenengo aldagai hori. Kapitulu honetan, euskararen egoera zedarritzen duten legedia ezberdinak azaldu eta bere aplikagarritasun maila eztabaidatzen du, nolabait esatearren gurean bereziki Iñigo Urrutiak landu duen “soziolinguistika judiziala” ezagutza-arloa jorratuz. Gure soziolinguistikan ia ekidinezina den Kataluniaren egoerarekin alderaketa egin ondoren, aipatzen da oraindik Euskal Herrian euskararen aldeko fronte baten falta dagoela, hein batean hizkuntzaren gaia eta eszenario politikoa polarizatua daudenez, zaila delako legeak ezartzen dituen mugei aurre egitea eta lege esparruan ere aurrerapausoak ematea. Horretaz gain, Europako Eskualde edo Hizkuntza Gutxituen Gutuna ere aipatzen du eta horren aplikazio hertsia egiteak euskararen osasunean izan dezaken eragina azpimarratzen du, hainbat egileen ekarpenak eta kasu praktikoak gehituz.

Hurrengo aldagaia “Bilakaera soziolinguistikoa” da, eta oraingoan, labur-labur euskararen egoeraren nondik norako historikoak zein izan diren azaltzen ditu, grafiko eta hausnarketa interesgarriekin. Esan beharra dago, agian Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) bilakaera espreski aztertzea falta izan zaiola azkenengo bi atal hauetan, batik bat ikusita arnagune geografiko eta sozio-funtzionalek azken hamarkada honetan bereganatu duten arreta, baina ondorengo ataletan ere UEMA hizpide izaten duenez, ez da, beharbada, gabezia nabarmena.

Ondorengo kapituluan “Jarrerak” aipatzen ditu, eta pasarte hau osatzeko, bereziki Euskararen Gaineko Oinarriko Diskurtsoak (EGOD) egitasmotik eta Berasategi, Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña ikerlarien “Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak” liburutatik jasotako ekarpenak erabiltzen ditu.

Aztertzen duen hurrengo aldagaia “Hezkuntza” da, eta egileak, euskararen egoera zein den azaltzeko, Arrue ikerketak eskaintzen dituen ondorio eta hausnarketak erabiltzen ditu gehien bat. Nahiz eta Lanbide Heziketan euskarak bizi duen egoera aipatzen duen, unibertsitateko errealtatea gehiago jorratu izana erabilgarria zatekeen liburu honen helburuak betetzeko, are gehiago kontutan hartuta BAT aldizkariak gai honen inguruan egindako hausnarketa duela hilabete batzuk kaleratutako zenbaki batean. Gainera, bereziki testuinguru ez hain euskaldunetan (Gasteiz izanik adibide garbiena) zabaldu den kezka liburu honetan ere sartzeko aukera galdu du egileak, nahiz eta agian liburuaren tamaina gehiegi handituko zuen. Izan ere, gizarteko eta hezkuntza arloko hainbat eragilek salatua da eremu ez hain euskaldunetako eskoletan alde nabaria dagoela etorkinen seme-alaben kopuruari dagokionez, ikasle horiek, alde batetik, ikastetxe publiko eta pribatuetan, eta hezkuntza ereduetan, bestetik, oso ezberdin banatzen direla ohartu baitira.

Hurrengo kapituluan “Euskal helduen euskalduntze eta alfabetatzea” jorraten ditu eta gai horri mamia gehitzeko AEK, IKA, eta HABEko arduradunekin aberasten du atala, haien hausnarketa eta kezak zuzenean jasoz.

“Administrazioa” gaia lantzen du hurrena, eta horretarako, euskarak erakundeetan duen egoera islatzen duten grafiko interesgarriak gehitzen ditu. Gizartean eztabaidarako gaia bihurtu den hizkuntza irizpideen gaia ere luze eta zabal lantzen du pasarte honetan, eta horretaz gain, euskalduntze beharra duten Osasunbidea, Justizia eta Herrizaingoa ere sartzen ditu. Beharbada, politikariak ere sartu zitzakeen kapitulu honetan, baina egileak geroxeago sartzea erabaki du. Edonola ere, administrazioetako agintarien euskara maila eta euskarako atxikimendua ere aztertzen ditu eta hau ez da batere ohikoa gure lan zientifiko eta hausnarketetan, hori ere onartu behar zaio egileari.

Ondoren, “Hedabideak” ditu aipagai hurrengo kapituluan eta nabarmenki tokiko komunikabideetako eta euskarazko hedabide txikiak langileek duten prekaritatea azaltzeaz gain, gurean aurkitu daitezkeen kasu arrakastatsuek azpimarratzen ditu Goikoetxeak. Hala-ber, beste herrialdeekin alderatuta, gure egoera baikorra dela gogorarazten digu egileak pasarte honetan.

“Gazteak” ditu aztergai hurrengo kapituluan, bereziki aisialdia eta eskolaz kanpoko ekintzak jorratuz. Dena den, pentsatu liteke askoz ere gai gehiago landu zitzaieela pasarte honetan, adibidez, gazteen parte-hartzea, kultura kontsumoa, ekintzailatza eta abar. Edonola ere, gaiari hurbilketa azkar bat egiteko gehitutako informazioa nahikoa eta esanguratsua da.

“Orain arteko ibilbidea” atal honi amaiera emateko, euskarak interneten daukan egoera aztertzen du, eta aurreko ataletan egin bezala, euskararen kasuak beste herrialdeekin alderatuta argi ilunak dituela ondorioztatu dezakegu. Atal honetan, hortaz, koherentea izan da bilakaera aztertzeko egileak erabili duen hipotesia eta hizkera: argi-ilunak daude, baina biei garrantzia sinboliko berdina esleitzen die.

Liburuko bigarren atalari “Adostasun bila” izena jarri dio eta gaur egun euskarak duen *impasse* egoera berezi hau aztertzeko baliatzen du. Izan ere, egileak aditzera ematen du euskalgintzaren barruan zerbait egosten ari dela hurrengo urteei begira, eta eltze horretan sukaldatuko den paradigma berriak euskararen biziberritzea berrakibatatu dezakeela.

Lehenengo kapitulari “Diskurtsoa berritzen” deitu dio eta euskarak azken urte haueetan maila diskurtsibo-ideologikoan izan duen eraldaketa aztertzeko baliatu du Goikoetxeak tarte hau. Horren harira, euskararen inguruan sortzen ari diren diskurtso berriak zeintzuk eta nolakoak diren deskribatzen du, eta horretarako, nazionalismo linguistikoa, feminismoa eta inposaketaren eta gatazkaren diskurtsoari aurre egiteko sortu den berdintasunaren diskurtsoa eta betebeharrak zibikoa kontzeptua aipatzen ditu.

Horren ostean, “Alderdi politikoak” kapituluan euskarak hauekin duen harremana du aipagai, eta honekin batera, alderdien arteko borrokak euskararen osasunean izan duten eragina aztertzen du. Adibidez, politikariek Twitterren egiten duen hizkuntza erabilera nolako den aipatzen du, eta Urkullu eta Otegi bezalako agintarien praktikak kritikoki aztertzen ditu. Horretaz gain, euskalgintzak politikarekin duen harremana nolako den azaltzen digu, areta berezia eskainiz Paris eta Nafarroako hizkuntza erregimen hedatzaile horien botere eta eraginari.

Hurrengo kapituluan “Euskalgintza” du hizpide, eta euskararen aldeko mugimenduak duen egoera berezia jorratzen du. Pasarte honetako ekarpenak, bereziki “Berrikasi eta berrikasi”, “EGOD” eta “Eta hemendik aurrera zer?” dokumentuetatik jasotzen ditu. Esan liteke, beraz, Eusko Ikaskuntzaren “Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen” egitasmoak duen filosofia partekatzen duela Goikoetxeak ere. Dokumentu horien arabera, euskalgintza fase baten amaierara iritsi da eta euskararen aldeko mugimenduak dituen indargune eta ajeak zeintzuk diren modu lasai eta orekatuan deskribatu beharra dago, aurrera begirako pausuak zehaztu aurretik. Eztabaida hori hainbat eratan aberasten du liburu honetako egileak, esaterako, gurean gutxitan agertu den “gipuzkoarzentrismoa” kontzeptua erabiliz, militantziaren beherkada aipatuz eta profesionalizazioak ekarri duen gehiegizko la-saitasunaz ohartaraziz.

Amaitzeko, “Akordioari begira” izeneko kapituluan, aurreko ekarpenak borobilduz eta ondorioetara bideratuz, euskara erdigunean jarri behar dela, arnagune politikoak behar ditugula, Euskal Herriko garai politiko berrira egokitu behar garela eta autoritate zientifiko baten beharra dugula gaineratzen du.

Hirugarren atala “Etorkizunera begira” da, eta behar bada aurreko ataleko azken kapituluarekin antza apur bat du. Lehenengo kapituluan, hots, “Errealitate soziolinguistiko berria” delakoan, proportzionaltasuna eskatzen dute elkarrizketatuek; “Hizkuntza eskubideak” kapituluan, berriz, “parekidetasuna” aldarrikatzen da, baita euskal hiztunen estres linguistikoa jaistearen ere, beraien lan-karga baita, gaur egun, bizi dugun egoera desorekatu honetan euskararen erabilerrari bultzada ematea. Ondoren, “Inmigrazioa” kapituluan berriazko planak eta antolakuntza eskatzen ditu; eta bukatzeko, “Aktibazioa” izeneko kapituluan “ezinbestekotasuna” eta jarrera proaktiboa behar direla azpimarratzen du biziberritze egoera horri indar berria txertatzeko. Esan beharra dago oso atal didaktikoa eta eraikitzailea dela azkeneko hau, liburuari bukaera egokia ematen diona, gainera.

Sarreraren esan bezala, oso liburu indartsua eta erabilgarria da honako hau, didaktikoa eta motibatzailea. Euskalgintzak guztiz beharrezkoa zuen horrelako material bat izatea esku artean, izan ere, batzuetan euskararen egoera deskribatzeko hizkera ezkorra erabiltzen aritu izan da euskalgintza azken aldian, bereziki urteetako lanak sortutako nekearen poderioz. Goikoetxeak liburu orekatu bat eskaini digu, euskararen alde on zein txarrak era gordin baina egokian balantza gainean jarritz.

Aipatzekoa da izenburuak berak duen esanahi sinbolikoa, izan ere, mezu ezkorrek ekidin eta bide onetik goazela jakinarazi nahi baitigu Goikoetxeak. Horretaz gain, azkenaldian Ipar Euskal Herrian euskararen alde egin den manifestazio jendetsu bat erabiltzen du portadarako irudi bezala, eta ez dira asko izan Euskal Herri osoaren egoera kontutan hartu duten liburuak gure artean, eta hori ere aitortu behar zaio egileari.

Baliteke bigarren atalaren bukaeran eta hirugarren atalean zehar agertzen diren ideiak antzekoak edota, kasu batzuetan, errepikakorrek izatea, eta hori izan daiteke liburu honi ‘leporatu’ ahal zaion ahulgune bakarra. Dena dela, ekintzaile, ikerlari, agintari, eta oro har, euskal hiztunentzako ezinbesteko liburuak kaleratu du Garikoitz Goikoetxeak, azken urte haueetan euskararen alde Berrian egin duen lanari jarraipen polita emanez. Euskalgintza horrelako zerbaiten premian zegoela adierazi dute hainbat dokumentu eta hausnarketek, eta “Berrikasi eta berrikusi”-k, esaterako, euskararen egoera begirada berri batekin ikusteko eskatzen zuen.

Ziurrenik, liburuaren egilearen helburua ondo zentratutako argazki argi bat ateratzea zen, baina edonola ere, ikusmira orekatua du euskararen egoera zein den azaltzerako orduan, eta hemendik aurrera, euskararen aldeko bide luze honetan jarraitzeko ispilu aproposa eskaini digu. Berak landutako lurrean ereitea falta zaigu gainerakooi orain.

Beñat Garaio Mendizabal